

















EREMU 1	HELBURUAK		KODA	3.ZIKLO BUKAERARAKO LORTU BEHARRA.	
E U S K A R A	<p data-bbox="412 272 573 300">AHOZKOA</p> 	<p data-bbox="680 272 1021 300">Ahozko mezuak ENTZUN</p> 	E1	<p data-bbox="1223 253 2002 389">Testu irakurriak, irrati emankizunak, bideoak, konferentziak, dokumentalak, olerkiak, ipuinak ENTZUN: irudi mentalen gauzatzeko, ezagutzen garatzeko, iritzien aberasteko, informazioen biltzeko ta analisatzeko.</p>	
		<p data-bbox="712 568 990 635">Entzulegoa kondutan hartuz, MINTZA</p> 	E 2	<p data-bbox="1223 413 2024 549">Ohartu, ULERMENA ERREXTEN duten irizpideeri: errepikapenak, berformulatzeak, sintesi laburrak, konklusioak, transizioak, euskarri desberdinak (marrazki, antzezte...), hitz gakoan zerrendatzea..</p>	
		<p data-bbox="734 868 967 895">EZTABAIDATU</p> 	E 3	<p data-bbox="1223 572 2024 708">Eztabaida batetan iritzi pertsonala adierazi, gai bati buruzko esposaketa burutu: ozen, ahozkatuz, eritmo egokian, doinu ulergarrian, hatsa kudeatuz, deneri begiratzuz, postura sendoan, jestuak eginez, euskarri bat(zuk) erabiliz, testua memorizatuz.</p>	
		<p data-bbox="685 1059 1012 1126">Erraiteko moldeari buruz, jarrera KRITIKOA izan.</p>	E 4	<p data-bbox="1223 772 2002 839">Esposaketak, audioz edo bideoz grabatu, ahozko balentriaren analisatzeko eta hobetzeko.</p>	
		<p data-bbox="685 1219 990 1246">Leunki irakurri</p>	E 5	<p data-bbox="1223 860 2024 919">Jakin, zerbaiten galdegiten, errefusatzen, eskertzen, barkamena eskatzen, elkarrizketa baten egiten.</p>	
		<p data-bbox="696 1315 1012 1342">Testu literario bat ulertu</p>	E6	<p data-bbox="1223 963 2047 1023">Eztabaidatzen jakin, aintzinetik finkatutako iritzi-errolak hartuz, argumentuak edo adibideak bilduz, sailkatuz, azalpena antolatuz.</p>	
		<p data-bbox="349 1222 604 1318">IRAKURKETA eta IDATZIAREN ULERMENA</p>	<p data-bbox="685 1059 1012 1126">Erraiteko moldeari buruz, jarrera KRITIKOA izan.</p>	E 7	<p data-bbox="1223 1062 2024 1121">Ahozko esposaketen lortze irizpideak, taldean finkatu. Aditzen ainiztasuna eta hitz zehatzen erabilpena sustatu.</p>
		<p data-bbox="349 1222 604 1318">IRAKURKETA eta IDATZIAREN ULERMENA</p>	<p data-bbox="741 1214 943 1241">Leunki irakurri</p>	E 8	<p data-bbox="1223 1155 1845 1182">Ahozko esposaketen ko-ebaluatzaile errola hartu.</p>
			E 9	<p data-bbox="1223 1222 1912 1281">Usu ikusten diren hitzak memorizatu, laster deskodatu, puntuazioa ahoz markatu.</p>	
			E 10	<p data-bbox="1223 1318 1980 1377">Irakurrieta, ulermen galdereri erantzun: pertsonaien kokatze, berformulatze, istoriaren marrazte, antzezte, presentatze...</p>	

EREMU 1	HELBURUAK		KODA	3.ZIKLO BUKAERARAKO LORTU BEHARRA.
E U S K A R A	IRAKURKETA eta IDATZIAREN ULERMENA (segida) 	Irudiak, dokumentuak, testuak ulertu eta interpretatu	E12	Taula, eskema, grafiko, irudi, argazkiak, dokumentu numerikoak irakurri.
		Ulermenaz jabetu: irakurle autonoma izan.	E 13	Dokumentuen ulertzeko, informazio inportantenak azpimarratu, notak apuntatu, informazio explizitoak eta implizitoak ikusi, erantzunak justifikatu.
			E 14	Euskarri desberdinen irakurtzen trebatu: eskuz idatzizkoak, kazetariz, paperez, numerikoz, linearrak, sistemikoak
			E 15	Gelako, eskolako edo herriko liburutegirat usu joan.
	IDAZKETA 	ESKUZ eta TEKLAZ idatzi 	E 16	Idazkera kurtsiboa menperatu. Leunki eta eraginkorki idatzi. Testu bat kopiatu: olerki, kantu, burasoei hitza, laburpenak...
		IDATZI, gogoetatzeko eta ikasteko.	E 17	Teklaz idazten usatu, leunki eta eraginkorki Ordinagailuz, testuen orri-antolaketa segurtatu.
		Idazlan ainitzak EKOIZTU 	E 18	Entsegu kaierran, erregulariki eta naturalki, idatzia erabili: hipotesien finkatzeko, ideien artikulatzeko, zerrendatzeko, behin-behineko konklusioen egiten hasteko, erantzun baten prestatzeko...
		Idazlan ainitzak EKOIZTU 	E 19	Bakarka edo taldeka, ideiak atxeman, erranaldiak eraiki, koherentziaz josi, parafoak antolatu. Zirriborro batetik hasi. Idaztea, errituala bilakatu.
		Ekoiztutako testua HOBETU 	E 20	Usu idazten diren hitzen ortografia jakin, "nola erran" eta zuzentzaile numerikoa erabili.
			E 21	Idazteko nekeziak dituztenek, helduari diktatzen segitu.
			E 22	Ekoiztutakoa, denbora baten buruan berriz hartu. Hiztegia aberastu, erranmolde egokiak erabili. Kide bat(zu)ekin konpartitu,
			E 23	Taldea haundian, erakaslearen laguntzarekin, testuen hobetzeko bideak ikertu.
	E 24	Berrikuste gidak, kolektiboki eraiki.		

EREMU 1	HELBURUAK		KODA	3.ZIKLO BUKAERARAKO LORTU BEHARRA.
E U S K A R A K	IDAZKETA (segida) 	Idatziaren NORMAK kondutan hartu 	E25	Ekoiztutako testu bat, ozenki irakurri. Konsigna bereko, ikasleen lan desberdinak konparatu. Talde haundian, bideo proiektatzailearen laguntzaz, testu bat zuzendu ta aldatu.
	HIZKUNTZA 	GRAMATIKA 	E 26	Parafoen nozioa kondutan hartu. Ohartu, logikazko eta denborazko konektatzaileek, testuaren koherentzia segurtatzen dutela.
		ADITZA	E 27	Gehien agertzen diren hutsen zuzentze-taula bat, kolektiboki eraiki eta erabili.
		ORTOGRAFIA 	E 28	Erranaldi mota desberdinak ezagutu, ekoiztu, sailkatu.
		HIZTEGIA 	E 29	Baiezko, ezezko, manuzko eta galderazko adierazpen perpausak aldatu.
		ADITZA	E 30	Non, Nori, Nora, Nor, Nork, Norentzat, Zertako
		ADITZA	E 31	Nor/Nork eta Nor/Nori eta Nor/Nori/Nork forma guziak: oraina.
		ADITZA	E 32	Aditza: trinkoa (erabilienak ezagutu: joan/eraman/jakin/egon) eta perifrastikoa (aditz + ad. Lag). Ahala NOR (nitakexu, laikexu, ...)
		ADITZA	E 33	Aditzaren aspektua: burutua (jan) / burutugabea (janen/jaten/jaten ari)
		ADITZA	E 34	a=organikoa / a=artikulua
		ADITZA	E 35	S/X, Z, R/RR araua jakin. H duten hitzen zerrenda (mandala) egin.
	KULTURA	Literarioa eta artistikoa	E 36	Sinonimoak (bereziki “erran” eta “egin” hitzarenak) eta antonimoak zer den, jakin eta erabili.
			E 37	Ahoskera arauak ezagutu.
			E 38	Denborazko aditzondoak: atzo, gaur, bihar, etzi, lehen, orain, gero, aspaldi, jaz, maiz, usu, sarri, barda... Loturazko hitzak zerrendatu.
		E 39	Hiztegia erabili. Orden alfabetikoa jakin. Hitzen osaketa: aurrizki/atzizki	
		E 40	Obrak aztertu: fikzio, olerki, jendarte gaiak, miragarriak, abenturak..	





ARTEA	HELBURUAK		KODA	3.ziklo BUKAERARAKO LORTU BEHARRA.
A R T E P L A S T I K O A K	ERREPRESENTATZE PLASTIKOA	Errealitatearekin eite duena ekoiztu.	AP 1	Lehen aldikotz, ohartzen duxu, Arteak egiazko errealitatetik deskarta bat baduela. Imitazioz, exageriazioz, interpretazioz, errealitatea desberdinki ikusten dixiu; bainan beti eite dixi halere.
		Irudi mota desberdinak erabili: artistikoak, zientifikoak, dokumentalak, marraztuak, tindatuak, argazkiak, bideoak...	AP 2	Jadanik ditugun irudi batzuen aldaera bilatu: numerikoki, kolatzeekin zentzua aldatuz, marrazkiz osatuz, tinduz apainduz, puxkez muntatuz...
		Ikusizko narrazioa sortu: 2 edo 3 dimentsionetan	AP 3	Istorio, lekukotasun edo irudi finkoak, espazio batean antolatu. Tokia antolatu bi edo 3 dimentsionetan. Instalazioa, ingurugiro fisikoa kondutan hartuz
		Ikuslearen presentzia eta bilatutako efektua, kondutan hartu.	AP 4	Obreen lotze, espazioan antolatze frontala edo ibiltaria, ikusle pasiboa edo aktiboa.. hainbat errepresentatze molde aztertzen ditixiu.
		OBREEN EKOIZPENA 	Teknika mistoak erabili, 2 edo 3 dimentsionetan.	AP 5
	Ohiko objektuak, beren izaitetik debideratu: asmatu, fabrikatu	AP 6	Objektu baten funtzioa aldatu (dimentsione poetikoa)	
	Ohiko objektuak, beren izaitetik debideratu: asmatu, fabrikatu	AP 7	Arkitekturaren legeak entseatu: bolumenak, nola egon daitezkeen espazioan. Oreka, desoreka, forma idekiak, zerratuak...	
	Espazioa 3 dimentsionetan esperimentatu 	AP 8	Ingurumen hurbilean, obra artistiko batzuk obserbatu, analisatu, konparatu	
		AP 9	Esperimentatu bolumenean lan egitea: modelatze, elkar lotze, eraikitze, instalatze.... Hutsak, beteak, barnea, kanpokaldea, ingurua, muga, forma hetsia, idekia..	

ARTEA	HELBURUAK		KODA	3.ziklo BUKAERARAKO LORTU BEHARRA.
A R T E P L A S T I K O A K	MATERIAK 	Materia desberdinak esperimentatu, hunki, erabili	AP 10	Materiaren errola interpretatu, forma eman, bortxatu, bere ahalmenekin jokatu. Nahigabeen gertatutakoak eta nahitarat gertatutakoak, bereixi.
		Materia desberdinen ahalmen fisikoak baliatu: latza, likidoa, moldagarri, gardena, lodi, kolagarri, trezagarri, elkar lotgarri, etab..	AP 11	Materia desberdinak erabili: tindatzeko, marrazteko, zizelkatzeko, eraikitzeko. Obra batean, mota desberdinak ezarri. 
		Jestua eta tresnaren efektuak	AP 12	Jestuaren indarra ta mogimendua kudeatu: pigmentuak sartu, kolak, lotzeak, ziliporta, estaltze.....
			AP 13	Tresna desberdinak erabili: Mustukaren herexak, eskua, eskuila, ixopa desberdinak, erabili.
		Kolorearen erabilpena 	AP 15	Koloreak ekartzen duen sensazioak ulertu: zein kantitate ezar laiken (eremu), eta zein intentsitatekoa. Hortarako, kolorea erabiltzen duten obra batzuk obserbatu, eta analisatu.

ARTEA	HELBURUAK	KODA	3.ziklo BUKAERARAKO LORTU BEHARRA.	
M U S I K A	KANTATU INTERPRETATU 	Eredu melodikoa eta erritmikoa berregin	M 1	Estilo desberdinetako kantuak ikasi.
		Xuxen kantatu, espresiboki.	M 2	Espresiboki interpretatu: tinbrearekin jokatzuz, intentsitatea, espazio (gorputza mugituz, iraupena, tempoaz zainduz...). Kantu bat gogoz jakin. Une batez, bakarka kantatu.
		Polifonia batetan, parte hartu	M 3	Polifonian, bere parte atxiki. Korala.
	ENTZUN, ERKATU, KOMENTATU 	Gelan, obra musikal bat entzun eta deskribatu. 	M 4	Entzuketak egin gelan: Horien komentatzeko, hitzak eskaini (erritmoa, koplak, errepika, melodia, tinbrea, garaikidea, zoin garaikoa, jatorri geografikoa). Ikasle batek, edo ikasle talde batek, gelan landutako pieza bat komentatu, hitz sinple eta egokiak erabiliz. Obra baten bertsiore desberdinak entzun eta erkatu.
	IMAJINATU, SORTU 	Gelan, obra musikal bat entzun eta deskribatu.	M 5	Musika tresna aintzak erabili. Ekoiztu, entzun, hautuak egin, antolatu, konposatu. Partizio grafikoak idazten hasi. Besteak entzun, proposamenak onartu.
	TRUKATU, PARTEKATU, ARGUDIATU 	Gustuak adierazi.	M 6	Entzundako musika bati buruzko iritzia desberdinak trukatu, aipatu. Besteen iritzia entzun, errespetatu. Beste sensibilitateei ideki. Norberak bere iritzia argudiatu. Musika ezagun eta mediatizatueta eztabaidatu.
		Lan kolektiboa burutu	M 7	Kantu kolektibo baten interpretazioa kritikatu, hobetzeko ikuspegi batetik.

ARTEA	HELBURUAK		KODA	3.ziklo BUKAERARAKO LORTU BEHARRA.
A R T E	IRITZI ARGUDIATU BAT EMAN 	Ahoz eta idatziz, irudikatu	AH 1	Irudimena garatu, obra batetatik abiatuz: taula, antzerki, zinema zati, obra musikal, koregrafia.
			AH 2	Emozioak eta sendimenduak zehaztu.
	IRIZPIDE TEKNIKOAK IKUSI	Identifikatu, Artistak, obra nola gauzatu duen.	AH3	Izan daitezke, obra musikalaren musika tresnak, tinbre aldaketak, mugimenduak. Edo objektu baten forma, bolumena. Edo entzun-ikuseko eszena baten planoak, pertsonaiak, ekintzak.
H I S T O R I A	KONTESTU HISTORIKO ETA KULTURALAN SARTU 	Obra garaikide bat(zuk), beren garai historiko, geografiko eta testuinguruarekin lotu.	AH 4	Gertakari historiko eta obra baten arteko loturak egin. 
		Testu ezagun bat, bere ilustrazio mota desberdinekin lotu.	AH 5	Testua izan daiteke: ipuina, alegia, olerkia, testu erlijiosoa, mitologikoa. Eta ilustrazioak, garai desberdinetakoak izan daitezke: musikalak, antzeztuak, dantzazkoak, filma
	MUSEO EDO ARTE ERAKUSTOKI BATEAN KOKATU 	Erakustoki baterat joan aintzin, ikerketa bat eraman.	AH 6	Museoa edo erakustokia bisitatu, pista-joko baten bidez. Zaharberitze taller baten bisita egin. Gune arkeologiko bat bisitatu. Ingurumen hurBILEAN, iraganeko herexak obserbatu eta argazkitan hartu.
	Ondareari sensibilizatua izan	AH 7	Kontserbatze lanetaz sensibilizatua izan.	

EREMU 5	HELBURUAK		KODA	3. ZIKLO BUKAERARAKO LORTU BEHARRA.
H I S T O R I A	DENBORAN KOKATU 	Gu baino lehen, zer? 	HG1	Aurrehistoria: Gure ingurumenean diren Aurrehistoriako eta Historiako herexekin, ardatz kronologiko bat eraikitzen eta osatzen hasi.
			HG 2	Aintzinaroa: Lehen zibilizazioak: Mesopotamia (oraiko Irak), Egiptokoa, Greziarra, Erromakoa. Idazkeraren sorrera.
			HG 3	Erromatarren konkista: Erromaren hedatzea, Galia ta Kartagoren konkista, Galtzadak (<i>bideak</i>), Merkataritza, Erromanizazioa, Erromar inperioaren erorketa, Erromatarrek Euskal-herrian.
		Erdi aroa: Baskonia, frankoen eta bisigodoen artean. Karlomañoren inperioa eta Orreagako gudua. Nafarroako erresumaren gora beherak.	HG 4	
		Erregeen garaia 	HG 5	Nafarroako erresumaren lau errege-erreginak. Feudalismoa, noblezia, jende xumea. Ekonomia, hirien egiturak, eraikuntzak, Konpostelako eta Donejakueko bidea. Euskara erdi-aroan.
		Aro modernoa eta Frantziako iraultza 	HG 6	Nafarroaren konkista Luis XIIIren eskutik. .
			HG 7	XVIII. Mendean, Frantziako iraultza. Luis XIVen urketa.
			HG 8	Aurkikuntza haundiak: itsas bidaiak, mundu berri baten konkista: Amerika. Meategien ustiapena. Mundu berriko euskaldun ospetsuak Merkataritza triangeluarra: Esklabutza
		Mundu gerlak eta Europar Batasuna 	HG 9	XX.garren mendean: bi mundu gerla. Juduen eta ijitoen genozidioa. Liberazioa. Europar Batasunaren sorrera.

EREMU 5	HELBURUAK		KODA	3. ZIKLO BUKAERARAKO LORTU BEHARRA.
G E O G R A F I A	ESPAZIOAN KOKATU 	Norabideak, puntu kardinalak	HG10	Eguzkia eta norabideak. Iparrorratza. Karta baten irakurtzea. Euskal-herriko probintziak, hiriburuak, ibaiak ezagutu.
		Erliebea 	HG 11	Lurrazala: mendia, itsasbazterra, ibaia Erliebea nere herrian. Mendialdeko paisaiak, paisaia ordokiak, itsas basterrak, ibai inguruetakoak
		Gure Lur planeta 	HG 12	Gure planeta. Nere herria, eskualdean, europan, munduan kokatu. Europako herriak kokatzen jakin. Lurraren irudikatze desberdinak. Kontinenteak eta ozeanoak kokatu eta izendatu.
		Herrian bizi 	HG 13'	Hirietako etxebizitzak, espazio turistikoak. Energia, ura eta janariaren beharrak, bizi-tokia baldintzatzen dute.
			HG 13"	Espazio batetan ibili: egunero, toki batetik besterat: treina, autoa... Mundu osoarekin komunikatu, Interneti esker. Konekzio ezak edo nekeziak, munduan ekartzen dituen desberdintasunak.
			HG 13'''	Hobeki bizi: "natura" hirietan sartu. Berziklatu. Eko-auzo batetan bizi.



HEZIKETA MORALA TA ZIBIKOA


3. ZIKLOA

Sensibilitatea: norberarena eta besteena

Ikasgaiaren helburuak:

- 1- Norberak bere emozioak eta sendimenduak identifikatzen, adierazten jakin.
- 2- Auto estimoa izan, entzuteko gai izan, bestearen tokian jarri.
- 3- Bere burua, taldekide bezala senditu.



Helburuak: EZAGUTZAK, GAITASUNAK, eta JARRERAK	IRAKATSI BEHARRA	KODA	ARIKETA PRAKTIKOAK: gelan, eskolan, kolegioan, herrian.
Emozioak eta sendimenduak partekatu eta erregulatu, egoera ainitzen inguruan: gelan biziutako egoeren aipatzean, obra literarioetan, arte obretan, aktualitatean.	Sendimenduen eta emozioen adierazteko molde ainitzak erakutsi: testu, obra musikala, Artea Komunikazio arauak menperatu.	HMZ 1	<ul style="list-style-type: none"> - Antzerkitxoak, mima joko. - Errola joko. 
Beren heineko adierazpenaren gauzatzeko, hiztegia mobilizatu.	Sendimenduen eta emozioen hiztegia ezagutu eta egituratu.	HMZ 2	
<p>Desberdintasunak onartu eta bestea onartu.</p> 	<p>Besteak errespetatu, beren ainiztasunean: arrazakeriari ohartu, antisemitismoari, sexismoari, xenofobiari, homofobiari, jazarpenari...</p> <p>Desberdintasunen errespetua, tolerantzia.</p> <p>Kultura eta erlijioen ainiztasuna aztertu, ikasgai desberdinetan.</p> <p>Sinesmen + konbikzioen ainiztasuna zaindu</p> <p>Besteari lagundu</p>	HMZ 3	<ul style="list-style-type: none"> - Artearen adierazpena: sendimendu eta emozioen adierazpen artistikoa eta literarioa. - Hitzegite iharduerak egin: egoerak azalduz, ebokazioak aipatuz. - Mutiko eta nesken gorputzak errespetatu: gorputz heziketan, hezkuntza afektibo eta sexualarekin lotura duten eskolako iharduera orotan. - Jazarpenaren mekanismoak eta ondorioak.


<p>Elez eta gorputzez, besteak errespetatu.</p> 	<p>Hitz egitean, besteaz axola izan, politetia erabili.</p> <p>Gorputza artatu, ingurumen hurbila zaindu, ingurumen urrunagoa ere. Ontasun pertsonala eta kolektiboak zaindu.</p> <p>Pertsona bere osotasunean kontsideratu.</p>	<p>HMZ 4</p>	<p>- Deba filo: tolerantziaz eta trufatzeaz.</p> <p>- Tolerantzia: Historiaren programaren irakaspenarekin lotu.</p>  <p>APS / SEI agiria lortu. "Apprendre à Porter Secours" = 'Sokorrien Ekartzen Ikastea'</p>
<p>Errepublikaren sinboloen zentzua ulertu.</p>  <p>Kooperatu.</p>	<p>Europar Batasunaren eta bere nazioen baloreak eta sinboloak.</p> <p>Kooperazioan lan egiten jakin</p> 	<p>HMZ 5</p>	<p>Himnoen interpretazio desberdinak (Arte musikalan)</p> <p>Errepublikaren sinboloen errepresentatze artistikoak</p> <p>Kooperazio egoerak bilatu: ikerketa lanetan Hizkuntzan, matematikan, gorputz heziketan, Artean, edo zientzietako esperimentazioetan.</p> <p>Gelan eta eskolan kooperatu.</p>



HEZIKETA MORALA TA ZIBIKOA

3. ZIKLOA


Arauk eta eginbeharrak: elkarrekin bizitzeko legeak



Ikasgaiaren helburuak:

- 1- Ulertu, zergaitik jendarte demokratiko batetan, arauen eta legeen betetzea, baitezpadakoa den.
- 2- Jendarte demokratikoen eta Errepublikaren baloreak eta printzipioak ezagutu.

Helburuak: EZAGUTZAK, GAITASUNAK, eta JARRERAK	IRAKATSI BEHARRA	KODA	ARIKETA PRAKTIKOAK: gelan, eskolan, kolegioan, herrian.
<p>1/a – Eskubideak eta eginbeharren nozioa ulertu. Onartu. Eta gauzatu.</p> 	<p>Haurren, pertsonaren, ikaslearen eta herritarraren eskubideak eta betebeharrak.</p> <p>Bidean ibiltzeko koda ikasi (APER maila). Prudentzia erakutsi.</p> <p>Hiztegia jakin: araua, eginbearra, eskubidea, legea.</p> <p>Egoera desberdinak aztertu: legedia, barne araudia, urratze kasuetan ondorioak.</p>	HMZ 6	<p>Gorputz heziketan, joko kolektiboak.</p> <p>Ikasleen biltzar zabalak: eztabaida demokratikoak.</p> <p>Ikasleen biltzar zabalean mintzatzeko arauak, gelan definitu eta eztabaidatu.</p> <p>Ikasleen biltzar zabala: (arauen zentzua, eskubideak eta ondorioen zentzua).</p>
<p>1/b – Denak errespetatu, bereziki emazte eta gizonen eskubideen BERDINTASUNA.</p> 	<p>Neska ta mutikoen artean, berdintasuna.</p> <p>Eskola mistoak.</p> <p>Eskubideen berdintasuna.</p> <p>Diskriminazioaren nozioa.</p>	HMZ 7	<p>Deba Filo: Ahalmen urriaz (handikapa). 2005eko legea.</p> <p>Deba Filo: baloreetaz eta normetaz.</p> <p>Baloreen sailkatze ariketa bat egin.</p> 
<p>2/b – Errepublika baten irizpideak ezagutu.</p> 	<p>Europako herrien demokrazia errepresentatiboaren printzipioak.</p> <p>Baloreak: askatasuna, berdintasuna, laiktasuna.</p>	HMZ 8	<p>Liburuetan, gazte literaturan, albumetan edo zineman adibideak harturik, sexu estereotipo batzuk analisatu.</p> 



Instituzioen izenak.

Euskal Herriko 3 entitate administratiboaren izenak

Legeen arrazoina eta eskubideen deklarazio handiak.

Herritartasun nazionalaren eta Europarraren nozioa (pertsona baten identitate juridikoa).

HMZ 9 Herritartasun municipala: herri baten zereginak eta ekintzak ulertu.

1789ko giza eskubideen deklarapena: 1., 4., 6. eta 9. garren artikulua gogoetatu.



Haurraren eskubideen nazioarteko hitzarmena.

Hezkuntzaren eskubidea.

Instituzioak, Historian zehar. Testu fundatzaileak.



HEZIKETA MORALA TA ZIBIKOA




3. ZIKLOA





IRITZIA: Norberak pentsatu, besteekin pentsatu.



Ikasgaiaren helburuak:


- 1- . Gogoeta kritikoa garatu. Iritzi moralen baieztatze bideak ikertuz: besteekin iritzia trukatu, elkarrizketa edo eztabaida argumentatu batetan.
- 2- Bakoitzaren interes propioa eta interes kolektiboa desberdindu.

Helburuak: EZAGUTZAK, GAITASUNAK, eta JARRERAK	IRAKATSI BEHARRA	KODA	ARIKETA PRAKTIKOAK: gelan, eskolan, kolegioan, herrian.
<p>1/a- Eztabaida, solasa edo elkarrizketa batetan parte hartu. Besteen aintzinean hitza hartu. Bestea entzun. Iritzi pertsonal bat adierazi, eta justifikatzen ikasi.</p> 	<p>Hautua, bere justifikazioa.</p> <p>Adierazteko molde desberdinak ezagutu: kontatu, erreportai bat egin, lekukotasun bat ekarri.</p> <p>Taldean elkar mintzatzeko arauak: entzun, besteen iritzia errespetatu, adoste baten bila ibili...</p> <p>Argumentatzen hasi. Eztabaida argumentatua. Eztabaida demokratikoa hasi.</p> <p>Ongia eta gaizkia. Zuzena eta zuzengabea.</p>	<p>HMZ 10</p>	<p>Aurre-iritzien kontra jo: bizitutako egoeretatik abiatu, gelan, eskolan, eskolatik kanpo... Arrazakeria, sexismoa, homofobiaren saihestu.</p> <p>“Estereotipoen” nozioa landu. Bizitutako egoeretatik abiatuz edo haurren saileko ipuin, album, eta kontakizunetatik hartuak.</p> <p>Egoera hauen inguruan eztabaidak antolatu.</p> 
<p>1/b- Norberak bere iritzia, ñabarduraz josi, besteen iritzia kondutan hartuz.</p>	<p>Aurre-iritziak eta estereotipoak (arrazismo, antisemitismo, sexismo, homofobia)</p>	<p>HMZ 11</p>	<p>Prentsari hezkuntza: CLEMI astean parte hartu.</p> <p>Hautzaroari begira, ikuspegi ainitzak Historian zehar eta munduan.</p>
<p>1/c- Ulertu, laikotasunak, denei iritzi eskubide bera segurtatzen duela eta denei, eskubide horren zaintzea exigitzen duela.</p>	<p>Laikotasuna = pentsatzeko, sinesteko edo ez sinesteko askatasuna.</p>	<p>HMZ 12</p>	




	Desberdindu: sinesmena eta iritzia.		Gertatutakoak analisatu, ideiak buruz-buru jarri: buruketak ebatziz eta ikerketak eginez (zientzietan, gorputz heziketan, Artean).
Informatika eta interneten erabiltzearen erronka zibikoak ikusi.	Komunikabideei buruzko hezkuntza: informazioaren trataera eta iritzi kritikoa.	HMZ 13	Eztabaida argumentatuetan, argumentatzen trebatu. Hizkuntza menperatu: hitz lotailuak eta lexikoa.
Lortutako emaitzaz, jarrera kritikoa izan.	Numerikoa erabiltzean, arduratsu izan: erabiltzaileen TUIC hitzarmena.		
2/ Bakoitzaren interes propioa eta interes kolektiboa desberdindu.	Ontasun kolektiboa: gela, eskola, jendartean.	HMZ 14	Baloreen zehazteko ariketak egin: ikuspegi pertsonaletik hartuz geroz, eta ikuspegi orokorretik hartuz geroz.
	Balore pertsonalak eta kolektiboak.		Literaturako, Historiako edo mitologiako heroier buruz gogoetatu: interes pertsonaletik ikusirik eta interes kolektibotik ikusirik.
Instituzioak eta baloreak: Askatasuna, berdintasuna, haurridetasuna.	Instituzioak eta baloreak: Askatasuna, berdintasuna, haurridetasuna.		Pertsonalitate garrantzitsu batzuen tokia eta errola: emazte edo gizon.
Nazio baten zentzu errepublikanoa.	Nazio baten zentzu errepublikanoa.		 
Funtsezko askatasunak.	Funtsezko askatasunak.		
Laikotasuna	Laikotasuna		
Europar Batasuneko baloreak	Europar Batasuneko baloreak		Laikotasunaren hitzarmen bat sortu ikasleekin. Beren adinari egokitua.











HEZIKETA MORALA TA ZIBIKOA **3. ZIKLOA**
ENGAIAMENDUA: Indibidualki eta kolektiboki eragin.



Ikasgaiaren helburuak:
 1- Gelan eta eskolan: ardurak hartu eta bete.
 2- Eguneroko bizi kolektiboan ardurak hartu. Konzientzia hiritarra, soziala eta ekologikoa garatu

Helburuak: EZAGUTZAK, GAITASUNAK, eta JARRERAK	IRAKATSI BEHARRA	KODA	ARIKETA PRAKTIKOAK: gelan, eskolan, kolegioan, herrian.
<p>1/a – Proiektu kolektibo batetan parte hartu (gelakoa, herrikoa, nazionala...)</p> 	<p>Engaiamendu morala (konfiantza, hitzemaite, leialtasuna, elkar laguntza, elkartasuna).</p> <p>Bestea lagundu : inizatibak hartu, lehen sokorrien ekartzeko agiria: « apprendre à porter secours » (APS).</p> <p>Bidean ibiltzeko koda: ardurei sensibilizatu. APER agiria.</p>	<p>HMZ 15</p>	<p>Konfiantzaren errolaz eztabaidatu. Eta bizi sozialan, hartzen diren engaiamenduen betetzeaz.</p>  <p>Ikasleen biltzar zabalaren bozka demokratikoaren printzipioak.</p> <p>Engaiamendua: Ikasleak, pertsonalitate feminino eta maskulino garrantzitsu batzuen egaiamenduari sensibilizatu. Zientzien munduan, politikagintzan, edo humanitarioan.</p>
<p>1/b – Norberak, bere hautuak eta ekintzak esplikatzeko jakin.</p>	<p>Bakoitzaren ardura, pertsona gisa eta herritar gisa, ingurumenean eta osagarrian.</p>	<p>HMZ 16</p>	<p>1946ko konstituzioaren aintzin-adierazpena.</p>
<p>2/a -Talde batetan tokia hartzen eta parte hartzen jakin.</p>	<p>Parte hartze demokratikoa</p> <p>Bozkatzea</p> <p>Eragile sozialak eta herritartasuna.</p>	<p>HMZ 17</p>	<p>Elkarteen lanaren errolaz ohartu.</p> 
<p>2/b- Haurridetasuna eta elkartasuna, hitz sinpleekin esplikatu.</p>	<p>Elkartasun indibiduala eta kolektiboa.</p> <p>Errepublikaren leman den “haurridetasuna” azaldu.</p>	<p>HMZ 18</p>	

EREMU 6	HELBURUAK		KODA	3.ziklo BUKAERARAKO LORTU BEHARRA.
M A T E M A T I K A	<p>ZENBAKIAK ETA KALKULUAK</p> 	<p>Zenbaki oso haundiak, zatiki arruntak ta hamartarrak erabiltzea ta irudikatzea.</p>   	M1	ZENBAKI OSO HAUNDIAK konposatu, Deskonposatu, milako elkarketak baliatuz, 1 000 000 arte 4, urtean, 1 000 000 000 arte 5, urtean. 12 zifra arte zenbakiak ezagutu.
		M2	Zenbakuntzako arauak ulertu eta baliatu.	
		M3	Zenbaki haundiak erkatu, sailkatu, eta tartekatu. Aurkitu eta lerro graduatu batean kokatu.	
		M4	<p>ZATIPIAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> - arruntak ulertu eta erabili - lerro graduatu egoki batean aurkitu eta kokatu - bi zenbaki osoz tartekatzen jakin - zatiki arrunten berdinketak lortu - handitasunen adierazteko edo kasu arruntetan neurrien adierazteko erabili. - zatidura baten adierazteko erabili. - erdi $\frac{1}{2}$, laurden $\frac{1}{4}$, heren $\frac{1}{3}$, ... eta $\frac{5}{10} = \frac{1}{2}$... loturak egin. - zatiki bat, zenbaki oso eta <1ko zatiki moldean idatzi 	
		M5	<p>ZENBAKI HAMARTARRAK:</p> <ul style="list-style-type: none"> - zenbaki hamartarren nozioa eta erabilera ulertu. - hamartarren adierazpen desberdinen arteko lotura ulertu (kakoxdun zenbakia, zatiki hamartarra, eta deskonposaketa) - hamartarretako unitateen arteko harremanak ezagutu - hamartarretan, kokapenaren araberrako zifreen balioa ezagutu - lerro graduatu batean kokatu - zenbaki hamartarrak eraktu, sailkatu, eta tartekatu - Neurriekin erabili: <p>Zenbakuntza unitate eta neurri unitateen arteko lotura egin: hamarren, dm, dg, dl.. euro 1/100 eta euro zentima)</p>	
		M6	Kalkulu arrunt eta oinarrizko estrategia batzuen memorizatzea.	
		M7	Ahozko ta idatzizko kalkulu estrategikoak eraiki eta hautatu	

EREMU 6	HELBURUAK		KODA	3.ziklo BUKAERARAKO LORTU BEHARRA.
M A T		<p>Problemen ebaztea, zatiki arrunt, zenbaki hamartar eta kalkuluak baliatuz.</p> 	M11	<p>Datuak antolatu eta kudeatu: informazioak euskarri desberdinetatik irakurri, taula diagrama eta grafikoak ustiatzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> - neurrien emaitzak ustiatzeko eta komunikatzeko - sartze bikoitzeko taulak - makila diagramak, zirkularrak, edo erdi-zirkularrak - grafiko kartesiarrak <p>Egunkarietako informazioak ustiatzea, beste ikasgaietako elementuak ustiatzea (zientzia, historia, geografia...)</p>
		M12	Lau eragiketen bidez, problemak ebatzi	
		M13	<p>Proporzionaltasuna. Egoera proporzionala ikusi, problemak ebatzi, proporzionaltasun taula baliatu, linearitate ezaugarriaz baliatzea, unitatetik pasatzea</p>	
E M A T I K A	<p>NEURRIAK</p> 	<p>Neurriak, zenbaki oso ta hamartarren bidez erkatzea, estimatzea eta neurtzea: luzera (perimetroa) eta azalera</p> 	M14	Edukiera unitateak ezagutu, erabili eta konbertsioak egin
		M15	Masa unitateak ezagutu, erabili eta konbertsioak egin.	
		M16	Hitz zehatzak erabili, unitate eta doazkion neurri tresnak.	
		M17	<p>Zenbaki osoak eta hamartarrak baliatzen dituzten problemak ebatzi.</p> <p>Perimetroa, luzera unitateen eta zenbakuntza unitateen arteko harremanak, neurria baliatu gabe azalaren erkaketa, perimetroa eta azalaren desberdintzea, azalaren aurkitzea lauzatze bidez edo formula bidez, azalaren haunditasunaren arabera sailkatzea, azalaren estimatzea edo neurtzea erreferentzia azalera edo lauzadura baten bidez. Azalera unitateak: mm², cm², eta m², eta unitate arteko harremanak.</p>	
		M18	<p>Azalaren kalkulu formularen eraikitzea</p> <ul style="list-style-type: none"> - unitate desberdinak edo konbertsioak eskatzen dituen buruketan ebazpena. - perimetro eta azalera kalkuluak: karratu eta laukizuzenaren perimetroa / karratu eta laukizuzenaren azalera. - bi memento jakinen arteko iraupenaren kalkulatzeko - memento jakin batetik abiatuz eta iraupena ezagutuz, heltze mementoaren kalkulatzeko - ohiko denbora unitateak: eguna, astea, orena, minutua, segundua, segundu hamarrena, hilabetea, urtea, mendea, milurtekoa 	
		M19	Bi neurrien arteko proporzionaltasuna egoeraz oihartzea	
M20	Bi neurrien arteko aldaketak adierazteko dituzten grafikoak.			